- Industria kideak konfidentzialtasun baldintzekin.

Kolaboratzaileak

CEGASA, IK4-Ikerlan, Argonne National Laboratory, Zentrum für Sonnenenergie- und Wasserstoff-Forschung (ZSW).

Prototipoak

Xedea

Ikerkuntza ildoaren helburua sistemari zuzendutako ikerkuntza ildoei garatu diren material berriak prototipo egoeran eskaintzea da, zeinetan kontzeptua gailuaren mailan erakutsi daitekeen.

Helburuak

Pilen etekina hobetzea prozesuaren parametroak hobetuz eta botoi-pilatik hasi eta mugikorreko bateriara arte baldintza teknikoak proiektatzea dira ikerkuntza-lerro honen helburu nagusiak.

Mugak eta arriskuak

Fase honetan kontuan hartu behar diren teknologiei dagozkien mugekin daude lotuta. Kontuan hartzen ari diren teknologien inguruan gertatzen ari diren aldaketei egokitzearekin eta material elektroaktiboak izan daitezkeenak handiagotze ezarekin daude lotuta arriskuak. Azken honi dagokionez, beharrezkoa da pila handiagoak egiteko, mugikorreko edo pila prismatikoak, adibidez.

Orain arte lortutako emaitzak

Ikerketa ildo hau garapen fasean dago oraindik.

Kolaboratzaileak

CIC-ren ikerkuntza ildoei zuzendutako sistema.

3.4. ZIENTZIAREN INGURUKO BERRI AIPAGARRIAK

UPDATE ON NA-BASED BATTERY MATERIALS. A GROWING RESEARCH PATH

Verónica Palomares, Montse Casas-Cabanas, Elizabeth Castillo-Martínez, Man H. Han eta Teófilo Rojo

Lan honetan Sodioa oinarritzat dituzten baterien inguruko informazio eguneratua aurkezten da. Batetik, energia biltegiratzeko bi sistema berrien bideragarritasuna aztertu da: Na-ura bateriak eta Na-O_2 teknologia: Bestetik, Na ioizko uretakoak ez diren sistemen aurrerapauso berriak biltzen ditu. Horiek guztiak sodioan oinarritutako sistemen barruan sar baditzakegu ere, uretako eta oxigenoan oinarritutako bateriak gorantz doaz, eta gero eta garrantzia handiagoa dute energia biltegiratzeari buruzko ikerkuntzan. Urik gabeko sodio ioaren teknologia da eremu honetan ikerkuntza lerroetatik garrantzitsuena. Sistema horiek energia biltegiratzeko hainbat baldintza betetzen dituzte: Sodioa eta ura duten bateriak merkeagoak eta seguruagoak dira; Na-O_2 sistemak energia dentsitate handiak biltzea behar duten gailuentzat aproposak izan daiteke; eta Sodio ioikoak energia egonkorra biltegiratzeko erabil daitezke.

Energy & Environmental Science. DOI: 10.1039/c3ee41031e
2013ko ekainaren 14an onartua.

HIGH TEMPERATURE SODIUM BATTERIES: STATUS, CHALLENGES AND FUTURE TRENDS

B. Hueso, Michel Armand and Teófilo Rojo

Sodio baterien tenperatura altuko ikerkuntza eta garapenaren aurrerapena ikusita, elektrolito inorganiko edo polimerozko elektrolito solidoa duten bateria solidoek energia iturria eratuko dute hainbat aplikaziorako tenperaturari dagokionez egonkorrak, fidagarriak, iraunkorrak direlako eta geometria erabilerrazak dituztelako. Elektrolitoek funtsezko betekizuna dute bateriaren korrontearen dentsitatean (potentzia), egonkortasunean eta segurtasunean eta, ondorioz, arrakasta lortzeko ezinbestekoak dira haiek hobetu eta berritzea. Izan ere, elektrolito solido inorganikoek bidea erraztu diote birkarga daitezkeen sodio bateria merkeen garapenari. Hemen, Na^+ eroale gehienen abangoardiako ikuspegi orokorra deskribatzen da elektrolitoak sodio/sulfuro eta ZEBRA baterietan erabiltzeko. Artikulu honetan elektrolito solidoak nabarmentzen dira, zeramikazkoak eta beira-zeramikazkoak bereziki, egoera solidoan dauden bateria guztiak ordezkatu ditzaketenak dira eta. Giro-tenperaturan eta tenperatura epeletan funtzionatzen duten material berriak aurkitzeko etengabeko esfortzuaren barruan, NASICON elektrolitoak ere hartuko dira kontuan. Poli(etileno oxidoan) (PEO) oinarritutako polimerozko elektrolitoak ere oso egokiak izaten dira egoera solidoko baterientzat. Beraz, idatzia ioiaren garraioan zentratu da ikusitako eroankortasunetik, elektrodoen prestakuntzatik, segurtasunetik eta ingurumeneko inpaktutik abiatuta.

Energy & Environmental Science. DOI: 10.1039/c3ee24086j
2013ko urtarrilaren 11n onartua.

POLYMERIC SCHIFF BASES AS LOW VOLTAGE REDOX CENTRES FOR SODIUM ION BATTERIES

Elizabeth Castillo-Martínez, Javier Carretero-González eta Michel Armand

Bi Schiff base fenilo eraztun bati gehituta (–N=CH-Ar-HC=N–) osatzen duen erredox entitatea sodio ioiko biltegiratzerako aktiboa dela ikusi da (Ar: aromatikoa). Schiff base polimeriko elektroaktiboak konjugatu gabeko eraztun alifatikoen edo konjugatutako diamina blokearen eta unitate tereftaldehidoaren arteko erreakzioan sortzen da. Schiff base anitz dituzten kristalek sodio atomoek baino gehiago gorde dezakete elektrokimikoki, azomeino taldeko 0 eta 1,5 Volten bitartean Na^+/Na-ren aldean. Erredox potentziala polimeroen katearen eta uztai aromatikoetan ordezkatzeko elektroiaren injekzioaren bitartez doitu daiteke. 350 mAh/g arteko kapazitantzia alderantzikagarriak lortzen dira karbono nahastea Ketjen Black®-erekin optimizatzen bada. Baina "alderantzizko" konfigurazioa (–CH=N-Ar-N=HC–) ez da elektrokimikoki aktiboa, baina bai isoelektronikoa.



Schiff base anitz dituztenek sodioa gaitasun handiarekin baina potentzial baxuetan sartzen dute. /C=N zubi bakoitzeko Sodio bat baino gehiago biltegiratu daiteke 10 π elektroi dituzten eta –N=CH-Ar-HC=N– unitate aktiboa duten Schiff base anitzetan.

Angewandte Chemie Int. ed. 2014.
http://dx.doi.org/10.1002/anie.201402402

Interneten argitaratua: 2014ko API 22

NA0.67MN1-XMGXO2 (0 ≤ X ≤ 0.2): A HIGH CAPACITY CATHODE FOR SODIUM-ION BATTERIES

Juliette Billaud, Gurpreet Singh, Robert Armstrong, Elena Gonzalo, Vladimir Roddatis, Michel Armand, Teófilo Rojo eta Peter G. Bruce

P2 egitura duten lurrean ugari den $Na_{0,67}[Mn_1\text{-}xMg_x]O_2$ katodoko materialak sodio ioiko baterietan elektrodo positiboak ($0 \leq x \leq 0.2$) sintetizatzeko erabili dira. $Na_{0,67}MnO_2$ konposatuak 175 $mAhg^{-1}$ kapazitantzia du eta biltzeko gaitasun ona. Mg %5 nahikoa da karga eta deskarga profilak arindu baina kapazitatea ez kaltetzeko. Mg edukia areagotuz gero, ziklo egonkortasuna hobetzen da, baina deskarga gaitasuna jaisten da (150 $mAhg^{-1}$ Na0.67Mn0.8Mg0.2O_2 konposatuarentzat). Sintesiaren bitarteko hozte prozesuak, eta baita Mg edukiak ere, egituran eragina duela ikusi da.

Energy & Environmental Science. DOI: 10.1039/c4ee00465e
2014ko otsailaren 21ean onartua.

MOLECULAR SWITCHES FROM BENZENE DERIVATIVES ADSORBED ON METAL SURFACES

Wei Liu, Sergey N. Filimonov, Javier Carrasco eta Alexandre Tkatchenko

Sarri, trantsiziozko egoera aitzindariak ikusten dira esperimentalki gainazaletan adsorbatutako molekuletan. Hala ere, egoera aitzindari horiek oso gutxi irauten dute eta berehala hartzen dituzte adsortzio konfigurazio egonkorragoak. Hemen, bentzenoaren eratorriek metalezko gainazaletan dituzten elkarreraginak aztertu ditugu eta bi adsortzio egoera metaegonkorren arteko muga eta egonkortasuna modu selektiboan doitu ditugu. Are zehatzago, tetrakloropirazina molekularen kasuan, egonkortasun bereko bi adsortzio egoera ikusi dira eta beraien arteko muga nahiko alderantzikagarria da. Aurreikusitako jarrera biegonkorra esperimentalki hautemateko gaitasuna zuzentzen dugu eta bere molekulen aldaketan duen erabilera azaltzen dugu.

Nature communications. DOI: 10.1038/ncomms3569
2013ko ira 5ean onartua 2013ko urr. 25ean argitaratua

COMPREHENSIVE INSIGHTS INTO THE STRUCTURAL AND CHEMICAL CHANGES IN MIXED ANION FEOF ELECTRODES BY USING PDF AND NMR SPECTROSCOPY

Kamila M. Wiaderek,Olaf J. Borkiewicz,Elizabeth Castillo-Martínez,Rosa Robert, Nathalie Pereira, Glenn G. Amatucci, Clare P. Grey, Peter J. Chupas eta Karena W. Chapman

X izpien arteko pareen banaketa funtzioko (PDF) datuen prozeduraren azterketa sakona egin eta Litioaren RMN espektroskopiarekin konbinatu da burdina oxifluorurozko elektrodoen etekin handiko erreakzio elektrokimikoko mekanismoak hobeto ulertzeko. Deskarga osoko ahalmena kargarekin berreskuratzen badoa ere (horrek erreakzio elektrokimikoaren alderantzizkortasuna eragiten du), zikloaren ondoren sortutako elektrodoen egitura atomikoa (deskarga-karga) eta ziklatu gabe lortzen den elektrodoko material garbia oso desberdinak dira. Ziklatzean elektrodo "aktiboan" errutilo fase amorfo bateko nano-konposatua eta nanoeskalako arroka-gatz fasea lortzen dira. Lotura-balentzien baturaren azterketa ikusita, eta tokiko PDF datuetatik ateratako egitura-parametro zehatzean oinarrituta (lotura-luzerak eta koordinazio zenbakia), badirudi anioien zatiketa gertatzen dela erreakzio elektrokimikoan: emaitza F ugariko errutilo fasea eta O ugariko arroka-gatzeko fasea da. F eta O ugariko faseak erreakzionatzen doaz, modu sekuentzialean; Fluoruro ugariko inguruetan Fe duten konposatuek erreakzionatzen dute lehenengo, bai kargan bai deskargan.

JACS. Journal of the American Chemical Society
Noiz argitaratua: 2013ko otsailaren 22an

4. Energia termikoa

biltegiratze arloa

4.1. GIZA TALDEA

Dr. Bruno D`Aguanno
TES Zuzendari Zientifikoa

"Energia biltegiratzeko beste teknologiak baino hobe, TES teknologiak energia biltzeko material merkeagoak eta ekologikoagoak erabiltzen ditu eta materialen zientzia berria muga termofisikoetarantz gidatzen du... TES Eremuak zepak, harriak, zementuak eta nano-fluidoak eta nano estruktura duten materialak erabiltzen ditu."

4.2. ERREPIDE-MAPA

2018

	Bero sentikorraren biltegiratzea	Bero latentearen biltegiratzea
HELBURUAK	Likidoaren egonkortasun termikoa hobetzea - Xede parametroa: T ≥ 800 °C	Trantsiziozko tenperaturekin metal aleazioen garapena tarte hedatuan - Xede parametroa: 300 ≤ T ≤ 500°C
	Eguzki-izpien efizientzia termikoa areagotzea izozte-tenperatura baxuagoa eta gatza erabiliz - Xede parametroa: T ≤ 250 °C	Bero latentea hobetzea - Xede parametroa: Entalpia ≈ 160 kJ/kg
	Biltegiratze material kantitatea gutxiagotzea berotze-gaitasuna hobetuz - Xede parametroa: Cp ≥1.5 J/g·K	Biltegiratze material kantitatea gutxiagotzea berotze-dentsitatea hobetuz - Xede parametroa: Beroaren dentsitatea ≈ 130 kWh/m^3
	HTF mugitzeko ponpaketa lana gutxiagotzea - Xede parametroa: Biskositatea ≤ 0.012 Pa.s @ 300 °C	Nano-kapsulazio bidez gatzaren PCM-ren erabilera areagotzea - Xede parametroa: nanokapsularen diametroaren tartea 5-10 nm
	HTF eta HSM-etatik beroaren transferentzia hobetzea - Xede parametroa: Bero-eroankortasuna ≥ 0,58W/m·K @ 800 °C	Metalezko aleazioaren eta nano-kapsulazio bidez gatzaren PCM-ren erabilera areagotzea - Xede parametroa: kapsulen bolumena handitzea ≈ 0.5 m^3
	Biltegiratzeko baliabide solidoen kostua murriztea - Xede parametroa: Kostu espezifikoa ≈ 10 €/kWth	Biltegiratzeko baliabide solidoen kostua murriztea - Xede parametroa: Kostu espezifikoa ≈ 40 €/kWth
	Biltegiratzeko sistemen kostua murriztea - Xede parametroa: Kostu espezifikoa ≈ 20 €/kWth	Biltegiratzeko sistemen kostua murriztea - Xede parametroa: Kostu espezifikoa ≈ 60 €/kWth
ESTRATEGIAK	Mikroskopio bidezko simulazioen garapena MD klasikoaren eta DFT MD-arena, esaterako.	Nahaste sinpleen fase-diagramak deskribatzeko simulazio-tresnak garatzea.
	HSM solidoen karakterizazio termo-fisikoa, eta hautatu diren nano-gatz nahasteen sintesia eta karakterizazioa	Laborategian metalen aleazioak sintetizatzeko metodo berriak garatzea.
	Nano-gatz nahasketak sintetizatzeko metodo berriak garatzea	Metalen aleazioak eta gatzen PCM enkapsulazioa egiteko protokoloak garatzea.
	Altzairuaren industriako zepen karakterizazioa eta zepei forma ematea.	Metalen aleazioa eta gatzen PCM enkapsulazioa egitearen arteko bateragarritasuna hainbat euste-materialekin.
	Laborategi-eskalan bero sentikorra biltegiratzeko gailuak diseinatu eta egitea (800 °C arteko tenperaturak); CIC-eko berotze-zirkuitua erabiltzea	400 °C arteko metalen aleaziozko biltegiratze/aldagailu unitateetako hodi anitzak diseinatu eta egitea.

2025

Bero sentikorraren biltegiratzea

Likidoaren egonkortasun termikoa hobetzea - Xede parametroa: T ≥ 1000 °C

Eguzki-izpien efizientzia termikoa areagotzea izozte-tenperatura baxuagoa eta gatza erabiliz - Xede parametroa: T ≤ 70 °C

Biltegiratze material kantitatea gutxiagotzea berotze-gaitasuna hobetuz - Xede parametroa: Cp ≥ 3.75 J/g·K

HTF mugitzeko ponpaketa lana gutxiagotzea - Xede parametroa: Biskositatea ≤ 0.004 Pa.s @ 300°C

HTF eta HSM-etatik beroaren transferentzia hobetzea - Xede parametroa: Bero-eroankortasuna ≥ 0,58 W/m·K @1000 °C

Biltegiratzeko baliabide solidoen kostua murriztea - Xede parametroa: Kostu espezifikoa ≤ 8 €/kWth

Biltegiratzeko sistemen kostua murriztea - Xede parametroa: Kostu espezifikoa ≤ 18 €/kWth

Nano-fluidoak eskala guztietan deskribatzeko simulazio tresnak garatzea.

HSM solidoen karakterizazio termo-fisikoa, eta hautatu diren nano-gatz nahasteen sintesia eta karakterizazioa T tarte hedatu batean

Nano-gatzen nahasketak T tarte hedatu batean sintetizatzeko metodo berrien garapena

Beroaren biltegiratzerako hondakinak izan daitezkeenak karakterizatu eta forma ematea

Laborategi-eskalan bero sentikorra biltegiratzeko gailu hobetuak diseinatu eta egitea (1000 °C arteko tenperaturak); CIC-eko SFERA instalazioak erabiltzea

Bero latentearen biltegiratzea

Trantsiziozko tenperaturekin metal aleazioen garapena tarte hedatuan - Xede parametroa: 300 ≤ T ≤ 800 °C

Bero latentea hobetzea - Xede parametroa: Entalpia ≈ 200 kJ/kg

Biltegiratze material kantitatea gutxiagotzea berotze-dentsitatea hobetuz - Xede parametroa: Beroaren dentsitatea ≈ 200 kWh/m^3

Nano-kapsulazio bidez gatzaren PCM-ren erabilera areagotzea - Xede parametroa: nanokapsularen diametroaren tartea 0,5-10 nm

Metalezko aleazioaren eta nano-kapsulazio bidez gatzaren PCM-ren erabilera areagotzea - Xede parametroa: kapsulen bolumena handitzea ≈ 1m^3

Biltegiratzeko baliabide solidoen kostua murriztea - Xede parametroa: Kostu espezifikoa ≈ 25 €/kWth

Biltegiratzeko sistemen kostua murriztea - Xede parametroa: Kostu espezifikoa ≈ 30 €/kWth

Nahaste konplexuen fase-diagramak deskribatzeko simulazio-tresnak garatzea.

Laborategian sistema konplexuak sintetizatzeko metodo berriak garatzea.

PCM konplexuagoak enkaptsulatzeko protokoloak garatzea.

Metalen aleazioak eta gatzen PCM enkapsulazioa egiteko protokoloa garatzea.

800 °C arteko metalen aleaziozko biltegiratze/aldagailu unitateetako hodi anitzak diseinatu eta egitea.

4.3. IKERKUNTZA ILDOAK

Bero sentikorraren biltegiratzea

Xedea

Batetik zeramikazko materialen kostu baxuaren balorizazioan oinarrituta eta, bestetik, propietate termofisikoak dituzten material berritzaileen garapenean oinarrituta -bero kapazitatea, bero eroankortasuna, biskositatea (fase likidoan) eta fase bakarreko tenperatura tartea esaterako- energia termikoa biltegiratzeko sistema efizientea eta fidagarria garatzea.

Helburuak

Gaitasun termiko handiko, eroankortasun termiko handiko eta biskositate txikiko material likido egonkorrak garatzea, nanopartikula-gatz nahasteak bereziki.

Dulong eta Petiten muga klasikoen antzerakoak eta asko doitu daitezkeen muga termo-mekanikoak dituzten material solido egonkorrak garatzea.

800 °C-ko tenperaturara arte tenperatura altuekin funtzionatzen duten energia termikoa biltzeko sistema merkeak garatzea CSP energia plantentzat eta industria prozesu anitzetan erabiltzen diren zaborren beroa berreskuratzeko aplikazioentzat.

Laborategiko eskalan eta benetako eragiketen baldintzetan bero sentikorra biltegiratzeko unitateak eraiki eta probatzea.

Eskala areagotzeko gaitasuna erakustea industriarekin kolaborazioan, industriara bidali aurretik erakusteko pilotu baten bidez.

Mugak eta arriskuak

Arrisku nagusia zeramikazko materialekin egindako energia termikoa biltegiratzeko sistemaren etekin baxua aurkitzea da.

Orain arte lortutako emaitzak

- TESek erabiltzeko beharrezkoak diren baldintzak dituzten azpiproduktu (zepa) merkeak ongi aukeratu eta karakterizatzea.
- Propietate termofisiko hobetuak dituzten - bero gaitasuna eta egonkortasun termikoa, besteak beste- nano-gatzen nahasketen diseinu arrakastatsua.
- Energia termiko sentikorra biltegiratzeko unitateak simulatu eta optimizatzeko CFD ereduen garapen arrakastatsua.

Kolaboratzaileak

IK4-Tekniker, Tecnalia, UPV, ArcelorMittal, IK4-Azterlan, NAVARGI, DLR, Fraunhofer, Friedrich Alexander University Erlangen-Nuremberg, ENEA, LCA, Soltigua, Enerray, CEA, ALSTOM, Optimum Cement, VTT, Tapojärvi company, PSI, Imperial College, MASEN, IRESEN

Bero latentearen biltegiratzea

Xedea

Energia termikoa biltegiratzeko sistemen kontzeptu berria garatzea eskatutako tenperaturetan solido-likido fase trantsizioak eta biltegiratzeko gaitasun handia eta eroankortasun termiko handia dituzten, eta aplikazio teknologiko bereziek eskatutako ezaugarriak dituzten material berrietan oinarrituta.

Helburuak

Azken erabiltzaileak eskatutako baldintzak betetzen dituzten metalen aleazio binario eta ternario berriak garatzea.

Nano-cluster metalen aleazio berritzaileak garatzea PCM materialak sortzeko trantsizioko tenperatura gero eta txikiagoekin.

Apar moduko karbonozko materialak garatzea PCM adsorbitzeko eta/edo enkaptsulatzeko.

Denbora laburrean bero-kantitate handia emateko gai diren energia termikoa biltegiratzeko sistemak garatzea: berotze potentzia handia.

Baldintza errealekin laborategian bero latentea biltegiratzeko unitate desberdinak egin eta probatuz kontzeptuak balioztatzea.

Eskala areagotzeko gaitasuna erakustea industriarekin kolaborazioan, industriara bidali aurretik erakusteko pilotu baten bidez.

Mugak eta arriskuak

- Egun saltzen diren biltegiratzeko bi tankeko eguzki bidez urtutako gatzeko sisteman ondoan duten prezio altua.

Orain arte lortutako emaitzak

- Material berrien garapen arrakastatsua eta bolumen handiak biltegiratzeko gaitasuna.
- Ikertutako materialen propietate termofisiko batzuetan lortutako hobekuntzak ulertzea ahalbidetuko duten simulazio tresnen garapen arrakastatsua.
- Bero latentea biltegiratzeko unitateak laborategi-eskalan simulatzeko CFD modeloen garapen arrakastatsua.
- Bero latentea biltegiratzeko unitateak laborategi-eskalan diseinatu, eraiki eta probatzean emaitza onak lortu dira.

Kolaboratzaileak

IK4-Tekniker, Tecnalia, UPV, SENER, MASEN, IRESEN

4.4. ZIENTZIAREN INGURUKO BERRI AIPAGARRIAK

COMPATIBILITY OF A POST-INDUSTRIAL CERAMIC WITH NITRATE MOLTEN SALTS FOR USE AS FILLER MATERIAL IN A THERMOCLINE STORAGE SYSTEM

Nicolas Calvet, Judith C. Gomez, Abdessamad Faik, Vladimir V. Roddatis, Antoine Meffre, Greg C. Glatzmaier, Stefania Doppiu eta Xavier Py

Artikulu honetan merkatuan Cofalit izena duen industria ondorengo zeramikak biltegiratzeko sistema termoklinoetan material betegarri gisa erabiltzeko gaitasuna demostratzen da. Zeramika hori, industrian amiantoa duten hondakinak tratatzean sortzen dena, energia termikoa biltegiratzeko propietate garrantzitsuak utzi ditu agerian 1100 ºC arteko bero sentikorrarekin, eta oso garestia da. Ikerlan honetan, zeramika horrek bi gatz urturekin duen bateragarritasuna aztertu da - betiko Eguzki gatz binarioa eta HUTEC, XL izena duen etorkizun oparoko nitrato gatz ternario bat-, tenperatura ertainean (500 ºC) eta egoera estatikoan. Gatz urtu termoklinoa zuzenean biltegiratzen duen sistema betegarri gisa kostu txikiko zeramika moldeatuarekin erabiltzea da helburua. Biltegiratze sistemaren kostua asko murriztuko litzateke eta plantaren efizientzia areagotuko litzateke aldi berean, tenperatura altuagoan beroago dagoen lurruna sortuko baitu.

Applied Energy. www.sciencedirect.com/science/article/pii/S0306261913000056
2012ko abenduaren 29an onartua 2013ko otsailaren 8an erabilgarri sarean

THERMODYNAMIC STUDY OF THE EUTECTIC MG49–ZN51 ALLOY USED FOR THERMAL ENERGY STORAGE

J. Rodríguez-Aseguinolaza, P. Blanco-Rodríguez, E. Risueño, M. J. Tello eta S. Doppiu

Mg49–Zn51 (masa%) aleazioa energia termiko latentea biltegiratzeko material egokia dela ikusi da. Atal honetan, kontu handiz karakterizatu dira erakutsitako solido-solido eta solido-likido faseetako trantsizioak. Ikertutako aleazioaren bero espezifikoan zentratutako azterketa termodinamiko zehatza ere eskaintzen da. Cp jarrera, energia termikoaren biltegiratze-esparruan oso garrantzitsua dena, teorikoki planteatu eta esperimentu bidez balioztatu da ia-isotermiko modulatuak diren kalorimetria eskaneatze diferentzialeko neurketen bidez. Mg-Zn sistema binarioaren metalen arteko fase desberdinek ere arrakasta izan dute tenperatura tarte osoa aztertzean.

Gako-hitzak: Eskaneatze kalorimetria diferentzial (DSC), Bero espezifikoa, Fase aldaketak, Bero energia biltegiratze, Mg–Zn aleazio binario, Thermodynamics CIC Energigunek Litio Bateria Aurreratuak Autoetako Aplikazioentzat Nazioarteko Kongresuaren 8. edizioa ospatuko du - ABAA8 -, zeina Bilbon (Euskal Herria, Espainia) ospatuko den 2015eko irailaren 30 eta urriaren 2 bitartean, eta hiru egunez ibilgailuentzako litio bateria aurreratuetan burutzen ari diren I+G proiektuak bultzatzeko, I+G aurrerapenaren inguruan eztabaidatu eta komunikatzea eta arlo horretan lankidetza globala indartzea den.

Journal of Thermal Analysis and Calorimetry. DOI 10.1007/s10973-014-3639-0
2014ko urtarrilaren 4an onartua Interneten 2014ko urtarrilaren 31n argitaratua

THERMOPHYSICAL CHARACTERISATION OF MG-51%ZN EUTECTIC METAL ALLOY: A PHASE CHANGE MATERIAL FOR THERMAL ENERGY STORAGE IN DIRECT STEAM GENERATION APPLICATIONS

P. Blanco-Rodríguez, J. Rodríguez-Aseguinolaza, E. Risueño, A. Faik, M. Tello eta S. Doppiu

Magnesioa oinarritzat duten metal aleazio eutektikoak eguzki energia kontzentratuko (CSP) aplikazioetan energia termikoaren biltegiratze-prozesuan (TES) fase aldaketako material gisa (PCM) erabiltzeko aukera aztertu da. Mg51%-Zn metal aleazio eutektikoaren karakterizazio termofisiko sakona burutu da giro-tenperaturan eta urtze-tenperaturan. Lortutako emaitzak literaturan aurkitu diren datuekin konparatu dira eta aurkitu diren desberdintasunak aztertu dira. PCM gisa erabilitako hainbat gatz inorganiko pururekin, binarioekin eta ternarioekin konparatu dira eta sistema desberdinen abantailak eta desabantailak nabarmendu dira. Aleazio hori ez da lurruna zuzenean sortzeko (DSG) CPS aplikazioetan bero latentearen energia biltegiratzeko bakarrik hautagaia, baizik eta presio handiko eta energia handiko lurrun prozesuetan erabiltzeko ere. Bildutako datuak funtsezkoak dira aleazio hori TESentzat PCM gisa erabiltzeari buruzko erreaktore esperimentalei buruzko erreaktoreen modeloak lortzeko.

Energy. DOI: 10.1016/j.energy.2014.05.058
2014ko maiatzaren 15ean onartua 2014ko ekainaren 13an erabilgarri sarean

5. Azpiegiturak

5.1. ERAIKINA

4500 m²

+ 2000 m²-ko laborategia

Elkarreragina

Elkarri konektatutako eta ikertzaileen lantokietatik gertu dauden laborategiak eta plataformak

Zona komun handiak

Iraunkortasuna

energia berriztagarrien alde

- biomasa
- geotermikoa
- fotovoltaikoa

Gehienezko Energia Efizientzia kalifikazioa

www.cicenergigune.com/visita-virtual/index.html

5.2. PLATAFORMAK

NMR **Erresonantzia Magnetiko Nuklearra.**

Atomoaren nukleoaren propietate magnetikoak baliatuz material ugariri buruzko informazio estrukturala, zinetikoa eta termodinamikoa lortzeko erabiltzen den teknika analitikoa da. Bi iman ditu (500 eta 200 Mhz-koak).

SAU **Gainazalak aztertzeko plataforma.**

Gainazal eta interfazeen ezaugarriak ezagutzeko teknika esperimental ugari eskaintzen ditu. Horien artean fotoigorpenen espektroskopia (XPS eta UPS) eta energia txikiko elektroien difrakzioa (LEED), Auger mikroskopioa (SAM), mikroskopio eskaneatzaileak (STM eta AFM) eta espektroskopio optikoa (Raman eta FTIR) daude, besteak beste.

EM **Transmisioko mikroskopio elektronikoa (TEM) eta mikroskopio elektroniko eskaneatzailea (SEM).**

Dry Room (Gela lehorra) **Gela lehorra 55 m²-ko azalera eta -60 ºC kondentsazio-puntua duen eremua da.**

Gela horretan elektrodo laminatu bihurtzeko materialak prozesatzen dituzten prototipoak daude eta pilen prototipoak mugikorrerako muntatzen dira bertan.

X Ray **X izpien difrakzio teknikak (XRD) eta angelu txikiko dispertsio teknikak (SAXS) osatzen dute X izpien plataforma.**

D8 berria erosi da Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak emandako diru-laguntzari esker.

PPMS **Propietate fisikoak neurtzeko sistema.**

Inpedantzia, garraio elektriko eta termikoa eta magnetometria hainbat tenperatura eta ingurunetan aztertzen dituen plataforma.

Analisi termikoko plataforma

Prototipoen laborategiak leku asko du laborategi mailan eta demostrazioen aurretik energia termikoa biltegiratzeko sistemak modu esperimentalean probatzeko.

Proben laborategia

Pila elektrokimikoak muntatu direnean, euren funtzionamendua probatzen da. Horretarako, voltametria eta galvanometria ziklikoa eta inpedantzia-espektroskopioa erabiltzen dira, hainbat baldintzatan. CIC Energigunek Proben Laborategi bat du horretarako eta sei potentziostato, klima-ganbera eta 300 kanal baino gehiago dituen bateria probatzailea daude bertan.

6. Ingurumenarekin konektatuta

6.1. #OPENLABS CICENERGIGUNE

ZIENTZIA GIZARTERA HURBILTZEKO EKIMEN BERRIA

Modu **erraz, erakargarri eta didaktikoan**

Gure inguruko gazteengan **bokazio zientifikoa** sustatzen dugu

Energiaren biltegiratzean etorkizunerako erronkei **emaitza berriak** aurkitzeak duen garrantzia hedatzen dugu

7 saio CICeko 12 zientzialari

baino gehiagok eskainita gure lana erakusteko

500 pertsonatik gora

gure ikerkuntza-lana esperimentatzen

- Unibertsitateko ikasleak
- Lehen hezkuntzako ikasleak
- DBHko ikasleak
- Ekintzaileak
- Irakasleak
- Hiritarrak

#openlabs 2014

- **2014ko apirila.** Egibide. Power our Future kongresua. Villasuso Kongresuen Jauregia
- **2014ko apirila.** Mondragon Unibersitatea. CIC Energigune
- **2014ko maiatza.** Mondragon Unibersitatea. CIC Energigune
- **2014ko ekaina.** Hiritarrak. Europako Energiaren Astea Vitoria-Gasteizko Mendizorrozako igerilekuak
- **2014ko azaroa.** Ekintzaileak. Araba ekinean Villasuso Kongresuen Jauregia
- **2014ko azaroa.** Abetxuko Ikastola. CIC Energigune
- **2014ko abendua.** Jesus Obrero. CIC Energigune

6.2. MASTERRA ETA DOKTORETZA

Konferentziak 5 unibertsitatetako programetan

Bertako 2 unibertsitaterekin kolaborazioa

Doktoregaiak
2013 — 11
2014 — 15

Masterra
2013 — 6
2014 — 10

Ikasleak praktiketan
CIC Energigunen
2013 — 2
2014 — 6

- Fisika eta Materialen Teknologia **Doktoretza** (UPV/EHU)
- Zientzia eta Materialen Teknologia **Doktoretza** (UPV/EHU)
- Ingeniaritza Mekanikoa eta Energia Elektrikoa **Doktoretza** (MU)
- Material Berrietan **Masterra** (UPV/EHU)
- Prozesu Kimikoen eta Garapen Iraunkorreko Ingeniaritza **Masterra** (UPV/EHU)
- Energia eta Potentziako Elektronika **Masterra** (MU)
- Energiaren Ingeniaritza **Gradua** (MU)
- Caen-go Unibertsitatea (Frantzia)
- Picardie Jules Verne Unibertsitatea (Frantzia) - MESC Masterra

6.3. ENPRESAK

BMW
BOSCH
SENER
avanzare
GRUPO ANTOLIN
CeGASA GROUP
GRAPHENEA
Productos Tubulares
AEG
ArcelorMittal
CAF
IBERDROLA
BALIO
ERANTSIA
SORTZEN
Johnson Matthey
IMERYS
TRANSFORM TO PERFORM
SOLVAY
Orona
MONDRAGON ASSEMBLY
NOKIA
SOLGROUP
a breath of life
SEAT
RENAULT
REPSOL
NOVARGI
Volkswagen
THALES
ZIGOR
Cluster Energía
eika

6.4. KONGRESUAK

SODIO BATERIEN NAZIOARTEKO I. SINPOSIOA

CIC Energigunek 2013ko urrian antolatu zuen munduko lehenengo topaketa mota horretako baterien inguruko ikerkuntzan egindako aurrerapenak partekatzeko

- 13 herrialdetako 111 hizlari
  - Enpresa ugari: Fiamm, Iberdrola, Iberpotash, Renault Nissan, Saft, Solvay, Solvionic, Sumimoto Chemical, Toyota Motor Europe
  - % 51eko laguntza EVE, Argonne National Lab, Comercial Rafer, Solvionic, Fisher Scientific, Energy & Environmental Science eta Basquetour-en eskutik
- 17 unibertsitateko ordezkariak, 11 hizlari nagusi
- Hainbat ikerketari buruzko 18 aurkezpen
- 30 panel erakutsi dira

II POWER OUR FUTURE

CIC Energigunek 2014ko apirilean antolatutako nazioarteko kongresu zientifikoaren bigarren edizioa

- 12 herrialdetako 136 hizlari
- Enpresa ugari: Eika, ZSW, JME, Irizar, AEG power solutions, Cegasa
- Babesaren % 9: Bruker, Specs, Alava Ingenieros, AEG, Scharlab eta Basquetour
- Berrikuntzak vs. POF 12:
  - kongresua dela eta, bezperan ospatuko dira (apirilaren 1ean) bi tutoretza-saio: Superkondentsadoreak eta Bateriak.
  - Lotutako jardueren artean, maiatzaren 31n, "Open Labs" zikloari emango zaio hasiera, eta Egibideko 100 ikasleren aurkezpena gauzatuko da.
  - Kongresuak irauten duen bitartean, ibilgailu elektrikoak erakutsiko dira (Renault, Nissan eta BMW) Villa Suso Jauregiaren kanpoaldean.

eranskina

BALANTZE EKONOMIKOA

GASTUAK eta INVERTSIOA urteko

(milaka euro)



	2012	2013	2014
Gastuak	3.399,61	4.077,92	4.783,83
Langileen kostua	1.841,88	2.410,27	2.881,99
Gastu orokorrak	1.557,73	1.667,65	1.901,84
Inbertsioa	1.426,61	824,97	910,80
AURREKONTUA GUZTIRA	**4.826,22**	**4.902,88**	**5.694,63**

DIRU-SARRERAK

(milaka euro)



	2012	2013	2014
Eusko Jaurlaritzaren funtsak - Garapen ekonomikoa eta lehiakortasunarena eta Hezkuntza	4.667,90	4.554,84	4.661,43
Europar Batasunaren funtsak	61,15	149,34	638,75
Beste finantzazio-iturri publikoak	34,00	74,42	202,14
Finantzazio pribatua	84,21	138,70	199,79
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	**4.847,26**	**4.917,30**	**5.702,12**

GASTUAK

(milaka euro)